

HITZARGIAK – Elkar argitzen duten hizkuntzak

Bai Euskarari Ziurtagiria

INFORMAZIO OROKORRA

DATA: 2016/04/26

- | | | |
|----------|--|---|
| 1 | Izena | Bai Euskarari Ziurtagiria |
| 2 | Hizkuntza | Euskara |
| 3 | Lan-arloa (hezkuntza, komunikazioa, irakaskuntza, aisia, administrazioa...) | Sozioekonomia |
| 4 | Kontakturako helbidea edo telefonoa | <p>http://www.baieuskarari.eus/eu/harremana
 info@baieuskarari.eus +34 943 592148 +34 673 811048 +33 0559255041</p> <p>GIPUZKOA: Andoain -> Martin Ugalde Kultur Parkea. Gudarien etorbidea z.g. 20140</p> <p>IPAR EUSKAL HERRIA: Baiona -> 1, Arsenal Plaza. 64100. Tel: +33 0559255041</p> <p>ARABA: Gasteiz -> Rogelia de Alvaro Elkarteen Etxea A.1.1. Panama, z.g. 01012</p> <p>BIZKAIA: Bilbo -> Luzarra 10, 2-1. 48014</p> <p>NAFARROA: Iruñea -> Martzelo Zelaieta, 75; U3 eraikina, 13. bulegoa. 31014</p> |
| 5 | Sare sozialetako kontaktuak (Webgunea, Facebook, Twitter...) | <p>www.baieuskarari.eus
 TWITTER: https://twitter.com/baieuskarari
 FACEBOOK: https://www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria
 YOUTUBE: https://www.youtube.com/user/Ziurtagiria
 FLICKR: https://www.flickr.com/photos/28622504@N06/
 RSS: http://www.baieuskarari.eus/eu/bloga/rss</p> |

PRAKTIKA EGOKIAREN DESKRIBAPENA

- | | | |
|----------|-----------------------------|---|
| 1 | Praktikaren azalpena | <p>Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak <i>Bai Euskarari Ziurtagiria</i> sortu zuen 2000. urtean, Euskal Herrian garatu zen <i>Bai Euskarari Akordioaren</i> prozesuaren baitan. Horren barruan, <i>Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoa</i> landu zen milaka entitateekin.</p> <p><i>Bai Euskarari Ziurtagiria</i> abian jartzeko erabakia gizarte-eragileek eginiko eskariaren ondotik etorri zen, <i>Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoaren</i> diseinuan parte hartzen ari ziren entitate ugari eskatu baitzuten Planean gomendaturiko neurriak borondatez hartu eta abian jarri izana kreditatzeko sistema sortzeko.</p> |
|----------|-----------------------------|---|



Ziurtagiriaren sortze prozesuan, laguntza handia jaso zen hainbat erakunderen aldetik. AENOR eta EUSKALITek kalitateari buruzko euren esperientziaren berri eman zuten, kalitate prozesuetan aholkulari den LKS enpresak bere ikuspegia gaineratu zuen eta, azkenik, prozesu horretan murgilduta dauden enpresa batzuetako buruek enpresa-ikuspegia gaineratu zuten. Azken horien artean, Zubietako Lanbide Eskola aipatzekoa da. Erakunde horien guztien jakinduria euskalgintzak urteetan metatutakoarekin osatu zen eta, batez ere, hizkuntza normalkuntza planetan diharduten aholkularitzekin: AEK, Artez, Elhuyar eta Emun.

2005ean abiatutako hausnarketa prozesu baten ostean, *Bai Euskarari Ziurtagiriaren* proiektua indartzeko, gidatzeko eta gizartearen aurrean erreferentziala izateko, egitura zabal eta sendoago baten behara nabarmen ageri zen. Horregatik, 2007an *Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarte*a sortu zen proiektuaren kudeaketaz arduratzeko. Ordutik, beraz, *Ziurtagiriaren Elkarte*a da proiektuaren kudeaketaz arduratzen den entitatea.

Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko prozesua

Bai Euskarari Ziurtagiriak egiaztatzen du enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko neurriak garatzen ari direla. Horrela bada, entitate baten hizkuntza-egoera zein den ziurtatzen du eta aurrera begira neurri berriak identifikatzen eta garatzen laguntzen du. *Bai Euskarari Ziurtagiria* duten enpresek, saltokiek eta era guztietako entitateek, edota eskuratu nahi duten guztiek, euren hizkuntza egoera aztertu behar dute; hortik abiatuta, urtean zehar garatu nahi dituzten helburuak proposatu behar dituzte. *Ziurtagiriaren Elkarteak* hizkuntza egoera aztertzeke eta urteko planifikazioa egin ahal izateko [aplikazio bat](#) jartzen du entitate guztien esku. Horren bidez, urteko helburuak adierazteaz gain, horiek gauzatu ahal izateko epe, baliabide eta arduradunak ere zehaztu ahal izaten dituzte. Ziurtagiria urtero berritu behar da eta *Ziurtagiriaren Elkarteak* jarraipen, ebaluazio eta sustapen lanak egiten ditu; era berean, helburuak betetzeko laguntzen gaineko informazioa eskaintzen du: diru-laguntzak, profesionalen gidak, aholkularitzak, euskarazko dokumentu eta inprimaki-ereduak...

Bai Euskarari Ziurtagiriak **hiru maila** ditu: “*Zerbitzua eta lana euskaraz*”, “*Zerbitzua euskaraz*” eta “*Bidean*”. *Bai Euskarari Ziurtagiria* “*Zerbitzua euskaraz*” eta “*Zerbitzua eta lana euskaraz*” eskuratzeko irizpideak eta baldintzak [lau ataletan](#) laburbiltzen dira:

1. Erakundeko pertsonen hizkuntza gaitasuna.
2. Irudi korporatiboa eta hizkuntza paisaia.
3. Kanpo harremanak.
4. Barne harremanak.

Orotara 150 bat item aztertzen dira. Bigarren mailarako zehazten diren baldintzak betetzera iritsi ezean, “*Bidean*” maila dagokio entitateari.

5 arrazoi Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko:

- 1) Euskal Herriko alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiteko tresna baliagarria da.
- 2) Bezeroei begira, entitateak bereiztea eta zerbitzuak eta produktuak bere hizkuntzan jasotzea erakargarriagoa da.
- 3) Lehiakideengandik nabarmentzea eta merkatu kuota irabaztea.
- 4) Ziurtagiriak euskararekiko konpromisoa adierazten du, taldearen kohesioa eta motibazioa; horri esker ere lortzen da arrakasta.



2 Praktikaren azalpenaren laburpena

5) Urratsak egiten ari diren Euskal Herri osoko entitateak identifikatzea eta saritzea.

Arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea da *Bai Euskarari*ren [helburua](#), euskaraz lan eta bizi ahal izateko dauden espazioak identifikatzea, babestea eta gehiagotara zabaltzea, gure egunerokoan eragina duten espazio guztietan euskarari leku egitea estrategikoa baita. Berebiziko garrantzia du.

Bai Euskarari Ziurtagiria Euskal Herriko alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiteko tresna eraginkorra da. *Bai Euskarari Ziurtagiriak* euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko neurriak garatzen ari diren Euskal Herri osoko entitateak identifikatzen eta saritzen ditu. Horrela bada, entitate baten hizkuntza-egoera zein den ziurtatzen du eta, aurrera begira, neurri berriak garatzen laguntzen du. *Bai Euskarari Ziurtagiria* eskuratu nahi duten guztiek, euren hizkuntza egoera aztertu behar dute eta, hortik abiatuta, urtean zehar garatu nahi dituzten helburuak proposatu behar dituzte.

Ziurtagiriaren Elkartek [aplikazio bat](#) jartzen du entitate guztien esku, urteko helburuen garapenean laguntzeko. Ziurtagiria urtero berritu behar da eta *Ziurtagiriaren Elkartek* jarraipen, ebaluazio eta sustapen lanak egiten ditu, bai eta laguntzen gaineko informazioa eskaini ere: diru-laguntzak, profesionalen gidak, euskarazko dokumentu eta inprimaki-ereduak...

Bai Euskarari Ziurtagiriak **hiru maila** ditu:

1. “Zerbitzua eta lana euskaraz”
2. “Zerbitzua euskaraz”
3. “Bidean”.

“Zerbitzua euskaraz” eta “Zerbitzua eta lana euskaraz” mailak eskuratzeko irizpideak eta baldintzak [lau ataletan](#) laburbiltzen dira:

1. Erakundeko pertsonen hizkuntza gaitasuna.
2. Irudi korporatiboa eta hizkuntza paisaia.
3. Kanpo harremanak.
4. Barne harremanak.

Orotara 150 bat item aztertzen dira. Bigarren mailarako zehazten diren baldintzak betetzera iritsi ezean, “Bidean” maila dagokio entitateari.

Bidenabar, nabarmendu behar da izugarritzko garrantzia duela esperientzia eta jakintza elkarren artean trukatzeko; baita indarrak metatzeko ere. Pentsaera horri jarraiki, harrotasun handiz bizi izan dugu *Bai Euskarari Ziurtagiriaren* eredian oinarrituta beste zenbait hizkuntza komunitatetan sortu diren ziurtagiriak, hala nola [Ya d'ar brezhoneg](#) Bretainian, [Oc per l'occitan](#) Okzitania, [Abertos ao galego](#) Galizian edo Herrialde Katalanetan landu den CertifiCAT izenekoa.

3 Aurrekariak (Inplementazioa burutzeko motibazioa, identifikaturiko beharrak)

Egunero, Euskal Herriko milaka lagunek euskaraz bizitzearen aldeko hautua egiten dute. Familia giroan, haurrekin, eskola zein ikastolarekiko harremanetan, parkean, lagun artean, unibertsitatean, eguneroko erosketa eta zereginetan, plaza publikoan... Lanean ere, edozein sektoretan, enpresa handi zein ertainetan, merkataritzan eta ostalaritzan, zerbitzuetan, euskararen aldeko apustua egin dute askok, kalitatezko zerbitzua eskainiz. Euskarari naturaltasunez BAI esanez eta hizkuntzaren erabilera sustatuz.

Euskara apustu estrategikoa eta berritzailea da edozein eratako entitaterentzat, eta onura asko dakartza. Besteak beste:

- merkatuan lehiakideek baino posizio hobea irabazteko garaian;
- bezero kopurua handitzeko;
- merkatu berrietan sartzeko edota etekinak areagotzeko;
- produktu eta zerbitzuak bere hizkuntzan eskaini behar zaizkio bezeroari, harreman-hizkuntza berak hautatu behar baitu, produktu eta zerbitzuak lehiakorrek eta kalitatezkoak izango badira;
- euskara gertutasun eta konfiantzaren adierazgarri da;
- Eta barrura begira ere, enpresarekiko atxikimendua areagotu eta motibazioa indartu egiten da lanean ari diren pertsonengan...

Azken batean, euskarak berezi egiten gaitu, berezi egiten gaitu.

Arlo horretan ari da lanean *Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarte*. *Bai Euskarari* Euskal Herriko alor sozioekonomikoarentzat osagai ezinbestekoa izan nahi du. Arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea da helburua, euskaraz lan eta bizi ahal izateko dauden espazioak identifikatzea, babestea eta gehiagotara zabaltzea. Egunerokoan eragina duten espazio guztietan euskarari leku egitea funtsezkoa baita.

4 Helburuak

Arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea da *Bai Euskarari*ren [helburua](#), euskaraz lan eta bizi ahal izateko dauden espazioak identifikatzea, babestea eta gehiagotara zabaltzea, gure egunerokoan eragina duten espazio guztietan euskarari leku egitea estrategikoa baita. Berebiziko garrantzia du.

Espazioak euskalduntzea estrategikoa da hizkuntza batean normaltasunez bizi ahal izateko. Horregatik, berebiziko garrantzia du alor sozioekonomikoaren espazioetan euskarari lekua egiteak. Lanean ematen dugun denboragatik edota produktu eta zerbitzuen kontsumitzaile izateagatik, eragina du lan munduak gure bizimoduan eta hizkuntza jardueran.

Denok eragile gara, eta hor kokatu behar da *Bai Euskarari Ziurtagiriak* etorkizunean ere egin nahi duen ekarpena. Baina hori ez da nahikoa. Horretarako, gainera, alor sozioekonomikoan aritzen den aktore bakoitzaren zereginak ondo finkatu behar dira. Garrantzitsua da lan mundua euskalduntzeari begira zeresana duten aktoreak ezagutzea (administrazioak, enpresak, langileak...) eta horietako bakoitzak zein funtzio bete behar duen argitzea. Guztion arteko elkarlana, osagarritasuna eta laguntza guztiz beharrezkoak dira.

Etorkizunean *Bai Euskarari Ziurtagiriak* urratsak ematen jarraitu nahi du, eta jarraituko du, alor honetan esku-hartze zuzena duten aktoreekin. Erronkari erantzukizunez heldu nahi diogu, euskaraz lan egin nahi dugulako, euskaraz kontsumitu nahi dugulako, euskaraz saldu eta erosi nahi dugulako. Euskaraz bizi nahi dugulako.

5 Eragin esparru nagusia eta albokoak

Proiektu honen bitartez Euskal Herri osoan ari gara euskararen erabilera soziala sustatzen. Une honetan (2016ko apirila) **1.297** dira *Bai Euskarari Ziurtagiria* duten entitateak: % 15,6k "Zerbitzua eta lana euskaraz" maila gorena, % 40,3 "Zerbitzua euskaraz" eta % 44k "Bidean".

<http://baieuskarari.eus/eu/ziurtagiridunak> [datu-basea etengabe eguneratzen da]



		<p>Gaur egungo egoera irudika dezagun, <i>Bai Euskarari</i>ekin lanean ari diren entitateak zein sektoretakoak diren begiratu behar da. Hauxe da ikusten dugun irudia: % 8, kulturari dagokio; % 4 gizarte mugimenduari; % 8 kirolaren sailari dagozkio; % 8,4, hezkuntza eta formazioari; % 30,5, zerbitzuen mundukoak dira; % 30, merkataritza eta ostalaritza sailekoak dira; % 8, enpresa industrialak dira eta % 2,6, lehen sektorekoak.</p> <p>Datuek adierazten duten bezala, sektore eta tamaina guztietako Euskal Herri osoko entitateak dira.</p> <p>Eragina entitate hauengandik harago doa. Izan ere, hornitzaileengan eta bezeroengan ere eragiten baita, bai eta entitate horiekin harremanen bat edo beste duten bezero eta erabiltzaileengan ere.</p>
6	Erakunde laguntzaileak eta horien lan-arloak	
7	Implementazio-epea	<p>2000 urtean sortu zenetik, nabarmena izan da <i>Bai Euskarari</i> alor sozioekonomikoaren euskalduntzean gizarteari egindako ekarpena, ugariak eragindako aldaketak eta azpimarratzeko modukoak ziurtagiria duten entitateen urte hauetako urratsak eta lorpenak. Bere aletxo jarri du <i>Bai Euskarari</i>. Gaur egun, gero eta enpresa gehiago ari da, euren borondatez, euskaraz lan egiten, euskaraz kontsumitzeko aukerak areagotzen eta euskaraz bizitzea errazten. Espazio berriak irabazi ditugu...</p> <p>Garai berri baten aurrean gaudela diote adituek eta, <i>Ziurtagiriaren Elkarte</i>an ere, horretara egokitze ahalegina ari gara burutzen. Bide luzea egin dugu gaur arte eta erronka handiak ditugu aurrera begira. Pausoak ematen ari gara eta horrela segituko dugu, gogo handiz. Konpromisoa berretsi nahi dugu.</p> <p>Gure elkarteak hausnarketa sakona egin du etorkizuna irudikatzeke. Non egon nahi dugun badakigu. Bidea irudikatu dugu eta orain laguntza eta lankidetzaren behar ditugu, euskal gizartearen babesa behar dugu, bereziki arlo sozioekonomikoan diharduten eta eragiten duten aktore nagusienak. Harreman sarea behar bezala landu eta ehundu behar dugu, elkarlanean arituz gero askoz eraginkorragoak izango baikara.</p>

INFORMAZIO GEHIGARRIA PRAKTIKA EGOKIEN FITXA

8	Hedapena (eragiten dien pertsona kopurua, barne-kanpo hedapena...)	http://www.baieuskarari.eus/eu/ziurtagiridunak
9	Inbertsioa (dirutan, denboran, pertsonetan, bestelako baliabideak...)	Ziurtagiriaren Elkarteak 8 pertsonen osatutako ekipoa du, Elkartearen proiektuen kudeaketaz arduratzeko.
10	Lortutako emaitzak	<p>Hamabost urte pasa dira. Hamabost urte arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiten, euskaraz lan eta bizi ahal izateko dauden espazioak identifikatzen, babesten eta gehiagotara zabaltzen. Hamabost urte egunerokoan eragina duten eremuetan euskarari leku egiten.</p> <p><i>Bai Euskarari Ziurtagiriak</i> 15. urteurrena ospatu zuen 2015ean, eta sortu zenetik nabarmena izan da alor sozioekonomikoaren euskalduntzean gizarteari egindako ekarpena, ugariak eragindako aldaketak eta azpimarratzeko modukoak <i>Bai Euskarari</i> duten entitateen urte hauetako urratsak eta lorpenak.</p>



11	<p>Dokumentazioa erreferentziako materiala</p>	<p>Urte hauetan arlo sozioekonomikoan mugarri asko jarri ditugu Euskal Herri osoan, ekintzaileak izan gara, tresna eragingarriak eta proiektu ausartak sortu eta abiatu ditugu (Enpresarean, Lansarean...) eta beste proiektu batzuk martxan jartzeko eragin dugu: <i>Lazarraga Sariak</i>, <i>Lanabes – Araban Euskara Lanean</i>, etab. Horrek guztiak merezi izan du, baina bidea egiten jarraituko dugu, Euskal Herriko gizartearentzat balioa eta aberastasuna sortzen segitzeko, gizartearen ongizatea areagotzeko.</p>
12	<p>Aurkezpen bideoa</p>	<p>Ekarpena egiten ari gara Euskal Herriaren garapenean. <i>Bai Euskarari Ziurtagiria</i> duten entitate guztiak inbertsio eta lan handia burutzen ari dira, barrura zein kanpora begira. Eta bada garaia hau dena aintzat hartzeko eta behar bezala aitortzeko, jakin behar baitugu urte hauetako lorpenak, ikasgaiak eta metatutako aberastasuna babesten eta etorkizunerako baliatzen.</p>
13	<p>Intereseko informazio gehigarrik</p>	<p>Globalizazioak inoiz baino gehiago eragiten digun mundu honetan, eta etengabe berritzen aritu beharreko garai hauetan, izugarrizko garrantzia du esperientzia eta jakintza elkarren artean trukatzeko; baita indarrak metatzeak ere. Pentsaera horri jarraiki, harrotasun handiz bizi izan dugu <i>Bai Euskarari Ziurtagiriaren</i> ereduaren oinarrituta beste zenbait hizkuntza komunitatetan sortu diren ziurtagiriak, hala nola Ya d'ar brezhoneg Bretainian, Oc per l'occitan Okzitania, Abertos ao galego Galizian edo Herrialde Katalanetan landu den CertifiCAT izenekoak.</p>
		<p>“Bai Euskarari Akordioaren prozesua eta Bai Euskarari Ziurtagiria: gizartearen eragiteko esperientziak” (argitaratu gabe). In HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. Asmoz Fundazioa, Eusko Ikaskuntza.</p>
		<p>Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko garaian aintzat hartzen diren irizpideak: http://baieuskarari.eus/eu/bai-euskarari-komunitatea/nola-lortu-ziurtagiria/mailak-eta-irizpideak www.baieuskarari.eus BIDEOA EUS: https://www.youtube.com/watch?v=Jd3i4AK0Vd0 BIDEOA EUS (azpigituluak ES): https://www.youtube.com/watch?v=-K2tI4TTRoU BIDEOA EUS (azpigituluak EN): https://www.youtube.com/watch?v=OM-JVC3vjAw BIDEOA EUS (azpigituluak FR): https://www.youtube.com/watch?v=2m577VenXmY</p>
		<p>Ziurtagiriaren Elkarteko bideo korporatiboa, lau hizkuntzatan http://www.baieuskarari.eus/eu/bloga/2015/09/02/ziurtagiriaren-elkarteko-bideo-korporatiboa-lau-hizkuntzatan</p>
		<p>Bai Euskarari Akordioa (JAKIN): http://www.jakin.eus/show/ac284b96f786bbd2969def2c9725c20b023f3689</p>
		<p>Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoa: gizartearen eragiteko esperientzia http://www.soziolinguistika.eus/node/963</p>
		<p>Zeintzuk dira praktika egokiak eta eredugarriak Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen arabera? Zer egin beharko luke egoki jardun nahi duen entitateak? Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko dauden irizpideei jarraiki, lau eremutan jaso dugu euskararen erabilerari dagokionez egoki aritu nahi duten enpresek, saltokiek eta era guztietako entitateek egin beharreko bidea. http://baieuskarari.eus/eu/bai-euskarari-komunitatea/praktika-egokia-eta-eredugarria-euskaraz</p>

